

Gertuko kultura ondarea eta identitatea

Iñigo Ramirez de Okariz

Kultura eta Euskararen normalizazioa
Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea
Mondragon Unibertsitatea

GAKO-HITZAK: Irakaskuntza eta prestakuntza. Identitatea. Gertuko kultura ondarea. Transmisioa. Lehen eta Bigarren Hezkuntza.

SARRERA

Identitatea giza izaerarekin loturiko berezko fenomeno da. Esan nahi da: pertsonak berezkoa duen nortasunarekin batera, genetikoki bakoitzak propio garatzen duena. Badaude, baina, beste bi identitate, soziala eta kulturala, eragile askoren bitartez eraikitzen direnak.

Prozesu horretan, uste dugu kultura ondarea ere identitateari lotuta dagoela. Biak, gainera, lotura hertsia dute eraikitze sozial eta pertsonalarekin. Izan ere, Correa-k dioskun bezala (2003), sozializazio prozesua prozesu indibiduala ere bada; pertsona izaki sozial, politiko eta kultural gisa eratzen den bitartean, pertsona indibidual gisa eta bakarra balitz bezala eraikitzen ari delako bere identitate propioa ere.

Identitate kontzeptua modan jarri da, batik bat globalizazioaren eta pentsamendu bakarraren eraginez nolabaiteko identitate desberdina aldarrikatzen denean (Calhoun, 1994; Castells, 1999)¹. Iruditzen zaigu, ordea, artikulu honetan gertuko kultura ondareaz eta, beraz, identitateaz ere jardungo dugunez, komeni dela ideia hori zertxobait gehiago sakontzea.

Antropologiak denboran zehar iraun duten objektuak hartzen ditu ondareztat. Objektu horiek esangura baten adierazleak izan dira; zama sin-

¹ Castells-ek Calhoun-ekin bat egiten du identitateari markoa jartzerakoan, eta honela definitzen du: «la identidad es la fuente de sentido y experiencia para la gente». Aldi berean, identitatearen eraikuntza sozialak lotura du botere-erlazioarekin, testuinguru batean markaturik, eta badira identitatearen jatorria azaltzeko hiru modu: *legitimatzaila*, *erresistentzia* eta *proiektua*. In: Castells, M. (1999). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad*. Madrid: Alianza Editorial.

boliko handia izaten dute, eta komunitate bat objektu horiek integratzen saiatzen da, ondareztat hartuta. Horrek —alegia, ondarearen eta komunitatearen arteko harreman horrek— giza eraikuntza bat dakar, eta komunitatea bera «aske da herentzia onartzeko edo errefusatzeko, dena edota zati bat. Beraz, ez da nahiko transmititzea; beharrezkoa da herentzia hori jasotzen duenak onartzea» (Allieu-Mary-Frydman, 2003:48-54).

Gainera, identitatea ertz askotakoa da, Ramírez-ek (1996:112) dioskun bezala: «un constructo negociado que resulta de las múltiples posiciones del sujeto respecto a las condiciones sociales, culturales y políticas en las que se inscribe».

Beraz, agian, horrek esan lezake, identitate bakarraz ez, baizik eta identitateez hitz egin beharko genukeela; alegia, «askotariko identitateak, gain-jarritakoak, osagarriak, kontraesankorrak» (Díaz de Balerdi, 2008:112).

Gizarte zientzien ikuspegitik ere iruditzen zaigu ondarea dela identitatearen adierazpen jatorrena, eta hartaz jabetuz erraztu genezakeela gizabana-kook hiri identitate arduratsu bat eratzea (pertsonala, soziala eta kulturala), inguruaren nahiz iraganaren kontserbazioan eta errespetuan oinarritutakoa.

1. KULTURA ONDAREA, IDENTITATEA ETA HURA ULERTZEKO ERAK

Martín-ek eta Cuenca-k (2011) emandako iritziarekin bat eginez, identitatea elementu garrantzitsutzat jotzen dugu ondare-hezkuntzaren prozesuetarako ere. Irakaskuntzan eduki eta interesgune gisa ondarearen tratamendua hartuta, komunitate baten historia berreraikitzeke balio ezinbestekoa du identitateak. Identitate integratzaile bat izan nahi du, hots, norberarena berretsiz besteean ere errespetatzera eramaten gaituena. Garena ez da ekintza edo gertaera handien ondorioa, baizik eta kolektibo baten emaitza, historia txiki bat balitz moduan: egindako aktibitateak eta lana, izandako giza harremanak, edo gure egunerokotasunari zentzua emateko erabiltako sinesmena.

Horrek guztiak eta gehiagok definitzen ditu gure oinordetza historikoa eta gure identitate kolektiboa. Giza transmisioaren bitartez jaso dugun kultura ondarea bitartekari ona da belaunaldi batek bestearekin harremana izateko; haren funtzio hezitzailea ezinbestekoa da, herritarra —oro har— eta ikaslea —zehazkiago— beren sustrai kulturalak ezagutzera daramatzalako, eta, aldi berean, baita beren inguru sozialaren sustraiak ezagutzera ere, baina ez inorengandik bereizteko, ez inorena baztertzeke. Hala, gure oinordetzatik jasotako ondarea gure memoriaren zati izatera iristen da, eta, aldi berean, «gu» gisa adierazteko eta definitzeko kulturaren esparrua transmititzeko baliabide bihurtzen da (Ortega, 2001).

Nahiz eta identitatea aldarrikatzeko dinamika askoz lehenagotik etorri, XX. mendearen bukaeratik aurrera indartu zen. Harrezkerotzik, ondareare-

kin loturiko aktibitateen ugalketa nabaria izan da, eta hori baliagarria izan da ondarearen beraren baina baita kultura ondarearen definizioa eta ikuspuntua aberasteko ere. Eta eztanda horren eragileak bi izan daitezke: bata, turismo-industriaren sozializazioarekin, garapenarekin, eta gaur egungo informazio eta komunikazio teknologiaren aurrerakuntzarekin nahiz sendotzearekin lotuta dagoena; bestea, gure iragan historiakoarekin, sustraiekin, gaur egungo aldaketekin bat datorren identitate kulturalaren bilakaerarekin lotuta dagoena. Balio berriek, portaera jarraibide berriek, iraganera egiten diren itzulerek motibatzen gaituzte. Izan ere, gaur, pragmatismoak eta etorkizunerako zalantzak badituen gizarte baten parte gara, eta, horri aurre egiteko, ondarea da iraganaren zein datorrenaren eta orainaren arteko bermea (Domínguez, 2003).

Kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia bada ere, batik bat eraikuntza sozial bat dela esan beharko genuke, baina baita, aldi berean, eraikuntza legitimatzaile bat ere (Reyes, Arteaga eta Jevey, 2003). Eta horretan oinarritzen dira herri bateko botere politikoa eta gizarte zibila ere, komunitatearen eta (gure) identitatearen irudia adierazteko eta komunikatzeko asmoz martxan jartzen dituen mekanismoetan eta aukeraketan. Eta hori lortzen da, beraz, legitimatze batekin, hau da, batasun ideologikoa edo kontsentsu politikoa dagoenean, hain zuzen ere². Izan ere, sakratutzat (eta legitimatutzat) jotzen diren ikurren bilduma bat da ondarea, talde batek beretzat hartu ondoren babestea erabakitzen duena. Ondasun kultural esanguratsuenekin (higigarriekin eta higigarriak ez direnekin) lotuta dago, hau da, memoria eta identitate kolektibo sozial eta kultural baten eraikuntza adierazteko erabiltzen direnekin eta besteengandik bereizteko erabiltzen direnekin lotuta. Tokiko identitatea eraikitzeke eta adierazteke ere baliagarria da (Homobono, 2008). Beraz, kolektibitate baten adierazpen moduan hartuta, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren elkargune dela ulertuta hitz egiten da identitateaz.

Le Goff (1998) adituak ere ondarearen eta identitatearen arteko harremana zuzena dela adierazi du; izan ere, batak zein besteak motibazio historiko komunak dituzte. Alde batetik, berrezagutzeko beharra, jatorri komuna defendatzeko; bestetik, historia, erakundeak, ohiturak, mentalitateak, praktika antropologiko, kultural eta politikoak, eta eguneroko espazio komunak definitzeko, mantentzeko eta finkatzeko. Esan nahi da espazio bat identitate-loturen bidez definitzen dela.

Antzerako harremana dago ondarearen eta memoria historikoaren artean, historiak memoria zabaltzeko eta landu egiten duelako, iraganeko lekuko interpretazio bat emateko (Prats eta Santacana, 2011).

² Hasieran ondarearen kontserbazioaren eragile nagusia eta bakarra Estatuak izan bazen ere, memoria nazional eta bateratu baten estrategia-eraikuntza osatze aldera begira, Espainiako Estatuaren kasuan autonomia erkidegoek, probintziakoek eta udalekoek badituzte eskumenak, eta, horri esker, gai dira gizarte berri honetan ondare mailako eronkei aurre egiteko, baina baita globalizazioaren aurrean norberarena dena babesteko eta zabaltzeko ere.

2. ONDARE ADIERAZPENAK: IDENTITATEAREN IKUR SINBOLIKOAK

Baina non, noiz eta nola suertatzen da edo dira batik bat halako ondare adierazpenak?

Ondare adierazpenak identitatearen errepresentazio sinbolikoak izanik, badirudi identitate mota ororen gain dutela eragina, nahiz eta, beren izaeragatik, oinarrizko identitate politikoei atxiki: tokikoei, herrialdekoei eta nazionalei (Prats, 2009).

Identitatearekiko lotura hori, baina, ez zen Aro Modernora arte agertu. Orduan, estatuen propagandarako helburua izanik ondarea, artelanak herri baten izaerarekin (identitatearekin) lotzen hasi ziren European, hori museo historiko garrantzitsuen sorreraren funtsa bihurtzeraino: British Museum (1753an) eta Louvre (1793an) dira, hurrenez hurren, horren lekuko. Erakunde horiek, estatuen indarra adierazteaz gain, boterearen ispilu ere bihurtu ziren. Nola? Beren kultura- eta historia-erreferenteak, hau da, erreferente identitarioak maneiatuz, inorena den zibilizazio ondarea indarrez ebatsi eta kultura-inperialismoa baliatuta (Cuenca, 2002).

Aro Garaikidean, Erromantizismoaren hasierarekin eta burgesiaren hazkunde eta indarrarekin ere gehiago gorpuztu zen norabide hori. Izan ere, ondarea nazionalismoarekin, panazionalismoarekin eta kolonialismoarekin lotzen zen, eta, beraz, erreferente nazionalak gorai patzen ziren, tokiko ñabardurak identitate kolektiboaren eraikuntzaren zerbitzurako azpimarratzeko (Homobono, 2008); hots, esan dezagun ideologia bat dagoela haren atzean. Eta, Prats adituak dioskun bezala (1997), horrek identitate testuinguru bat sortzeko bidea erraztea dakar; kultura ondarean ardatz bihurtuko den testuinguru bat, alegia. Hala, kultura ondarea nazioaren eta haren aurrerapenen ikur bihurtu, eta ondare ondasuna Estatu-Nazio batu baten irudipena islatzeko baliabide bat da, bai museo eta hezkuntza programetan, bai testuliburuetan ere.

XX. mendearen bukaerak eta XXI.aren hasierak, berriz, ondarearen balioa handitzea ekarri zuten. Hala, alde batetik, harremanak sortzeko eta gure identitateak ikonoen bitartez eraikitzeko, norberaren lurraldearen gaineko mekanismoak sortu dira, norberaren identitate nazionaletik haratago doazenak, sarri kontsumoan, modan, iragankortasunean eta norbanakoaren esparruan mugatzen direnak, espektakuluan oinarritutako gizarte bihurtzeraino (Lipovetsky, 1996). Baina, beste alde batetik, ezin uka tokiko identitateak berresteko beharrak bultzatzen direla, mundu global honekiko distantzia mantendu nahian edo. Gizarte honetan, kultura kontsumoaren eskaintza-esparruan beste aukera bat besterik ez da ondarea. Horregatik, haren kudeatzaileak ikuspegi integral batetik ari dira lanean, eta herritarrengan nahiz bisitariengan balio eta esanahi berriak sorrarazteko estrategiak erabiltzen dituzte. Izan ere, garai berriekin, agian, beste ondare-aktibitate mota bat sortu da, identitatea arrazoi nagusitzat ez duena, baizik eta turisti-

koa eta komertziala. Horretarako, identitatearen bertsio ideologiko batzuek adierazten duten *gu geu geure buruarekin* lelotik *gu inongo buruarekin* lera pasatu gara; hots, gure identitatearen kanpoko, azaleko irudia bultzatza, sarri turismoko zerbitzu-emaileen zirkuluetatik guztiz estereotipatuta transmititzen dena (Prats, 2009).

Euskadiren kasuan, XIX. mendea ere oso garrantzitsua izan zen euskal elitearentzat; batez ere, euskaldun gisa identifikatzen hasi zelako eta gaur egungo identitate kontzeptuari hasiera eman ziolako. Orduetik aurrera, probintziez gaindiko identitate komunitario bat, euskal lurralde guztian barreiatua, sortu zen; hau da, kolektibitate identitate bat, eduki aberats batez lagunduta, non, lur edota hizkuntza mailako elementuetatik aparte, beste elementu juridiko-politiko, kultural, historiko edota etniko batzuk ere sortu ziren. Euskal gizarteak, gainera, transformazio garai sakona bizi zuen orduan, gizarte tradizional batetik gizarte moderno batera pasatu baitzen (Rubio, 2003).

XX. mendeari begira, berriz, ezin dugu aipatu barik laga Kultura Ondarearen 7/1990 Legea, uztailearen 3an onartua. Lege horrek, izan ere, badu balioa guretzat, batik bat identitate kulturalarekin egiten duen loturagatik. Legearen hasieran esaten duen bezala: «Euskal kultur ondarea da euskal herriaren nortasun-adierazgarriarik nagusia eta herri honek mundu osoko kulturari kondairan zehar ematen dionaren erakusgarriarik garrantzitsua» (7/1990 Dekretua, eta Arrieta, 2008).

Aldi berean, baina, ondarearen interpretazioaren gaineko aldaketa kualitatibo bat ekarri zuen mende berriak, bai Espainian eta baita nazioartean ere, ondarea bera dokumentu historikoaren pare eta garai bateko erreferente kulturaltzat hartzen zelako.

Baina, globalizazio prozesuaren aurrean tokiko garapena lortzeko, memoriaren eta herritarren identitatearen arteko topaketa bat egitea beharrezkoa da. Horrela, kultura ondasunen gozamenerako eta gizarte elkarrekitzarako nahiz elkarbizitzarako espazioak eraikitzen saiatu beharko litzateke, non herritarrok eta orotariko ondare adierazpenak elkarrekin bizitzeko gai izango garen (García, 2009). Horrela izanez gero, kolektibitate edota komunitate kultural bateko identitate kultural propioa adieraziko du ondareak (Fernández, 2001). Baina, bestalde, egun bizi dugun kultura bate-ratzeko tendentziari aurre egiteko asmoz norberaren identitatea berresteko edota eusteko interesa ere zabaltzen da ondarea defendatzeko eta babes-teko prozesuetan. Horrela, ohiturak, gastronomia, arkitektura, errituak eta beste adierazpen artistiko batzuk erreferentzia identitario bihurtzen dira gizabanakoentzat, eta haiek erabiltzen, aldatzen, interpretatzen eta transmititzen dituzte, beren dinamika kultural propioaren arabera.

Hala ere, esan dezagun monumentuen edo objektuen zaharberitzea baino garrantzitsuagoa dela norberaren egitasmoak zein diren argitzea (Fernández-Salinas eta Romero-Moragas, 2008).

Badugu identitate kolektibo bat, beraz, nazioan artikulatu edo egituratu dena Europa garaikidean. Kultura komun baten jabe gara, eta komunitate

osoarekin partekatzen dugu. Identifikazio hori —gizatalde bat kultura komun batekin identifikatzea— da antropologoek etnia izendatzen dutena. UNESCO-rentzat berarentzat ere, ondarea kultura kolektibo baten bermea eta aldi berean esentzia ere bada, eta horrek taldearen identitatea osatzen du (Correa, 2003).

3. CURRICULUMA ETA IDENTITATEA: GATAZKAGUNE

Hezkuntzan dihardugunontzat, curriculum ofizial batean islatzen dena izan daiteke kultura. Hala ere, definizio hori mugatzailea izan daiteke, bai baitirudi ez dagoela beste aukerarik curriculumari berari jarraitu baino, ikuspegi soziokulturalagoak dituzten beste curriculum batzuk, adibidez, baztertuta. Hala, topatzen dugu curriculumetan ikuspegi hegemonikoa transmititu nahi izan dela, beste errealitate soziokultural marjinal edo nahasi batzuk azalduta (Bilbao, 2002).

Delors-ekin batera, curriculuma kultura tresna bat ere badela esan dezakegu:

«Si los países industrializados pueden ayudar a las naciones en desarrollo compartiendo con ellas sus experiencias positivas, sus tecnologías y sus medios financieros y materiales, a su vez pueden aprender de esos países modos de transmisión del patrimonio cultural, itinerarios de socialización de los niños y, más esencialmente, formas culturales e idiosincrasias diferentes» (Delors, 1996:29).

Ideologia liberalak, progresistak zein kontserbadoreak XIX.-XX. mendeetan zehar saiatu ziren osatu berriak ziren Europako estatu-nazio moderno guztietako lurraldeetan berek asmatutako hezkuntza nazionala zabaltzen. Horrela, hezkuntza eta hizkuntza ofiziala izan ziren estatu berrien sinboloak, monarkiarekin, banderarekin, himnoarekin eta armadarekin batera. Baina, horrekin batera, baita hezkuntza formal eta arautuaren zabalkuntza, orokortzea eta homogeneizazioa burutzea ere. Eskolaren kudeaketa eta antolaketa estatuari zegozkion jarduerak ziren. Alegia, «estatu-nazio» izaera horren babeslekua eta transmisioa bermatzeko paregabeko erakunde bihurtu zen hezkuntza sistema (Basurco, 2007), eta hezkuntza sistema bera curriculumaz baliatu zen eta baliatzen da estatu-nazio izaerarekiko ondo atxikitzen den gizarte-ikuspegi sozial, ekonomiko eta kulturala transmititzeko.

Ezkurdia-k dioskun bezala (2004), curriculuma boteregune gisa uler daiteke, eta ideologia eta kultura hegemonikoen erreprodukzioa bideratzen du, kontzientzia-moldaketaren bidez: gizarte kapitalistaren antolaketa soziala ontzat, bakartzat eta desiragarritzat aurkezten du, eta estatu-nazio kapitalistaren sinesgarritasuna mantentzen.

Ikerketa kritikoeek ere adierazi digute curriculuma eraikuntza soziala ere badela, beste edozein asmakizun sozial bezalakoa: estatua, nazioa, er-

lijioa... Hala, modu eta eduki batzuk hautatuz eta beste batzuk baztertuz, une historiko jakin bateko tresna ideologiko eta eragile garrantzitsu bihurtzen da. Intentzioa duen erreminta bat da, norbaitek helburu batzuk lortzeko diseinatua, nahiz eta sarri ez argi geratu zer irizpide erabiltzen diren eduki batzuk ontzat emateko eta beste batzuk, ordea, baztertzeko.

Curriculuma bera, egitura sozioekonomiko eta kultural bat transmititu nahian egungo tesi neokapitalistekin bat datorrena, gizarteak berak dituen gatazka askoren isla ere bada, eta ez maila sozialetik soilik begiratuta, baizik eta baita nazio tratamenduaren ikuspegitik ere, gurea bezalako herrientzat. Horrela, curriculuma identitateen arteko gatazkagune da; izan ere, batzuek beren pentsamendu hegemonikoa transmititu nahi izaten dute, beren identitate nazionala, eta beste batzuek, berriz, ideologia horri aurre egin nahi diote. Beraz, curriculuma ez da corpus neutroa; ez da bertatik zabaldu nahi den jakintza errealitatearen isla garbi bat, baizik eta zenbait eragilek beraren gainean egindako giza interpretazioen emaitza bat (Da Silva, 2001). Egitasmo hori curriculumak zehazten dituen edukietan islatzen da. Curriculumak ikas-irakasteko prozesua moldatzen du, kulturaren eta gizartearen arteko harremanak bermatze aldera, eta, aldi berean, ikasleari esaten dio zer ezagutza den on eta garrantzitsu.

Pertsonak eduki horien bidez eta bizi duen egoera soziokulturalarekin zein sistema kulturalarekin bat eraikitzen du bere identitatea. Ezkurdia-k gogoratzen digun bezala (2004), identitatearen eraikuntzan, bi alde desberdintzen dira: batetik, arbasoengandik datorrena; haren bitartez, taldekide egiten gara. Horri erreproduktzioa deritzo. Baina, bestetik, egoera berrietara egokitzeko, askotan, modu kultural berriak sortzen ditugu, aurrekoak moldatuz eta aldatuz. Horri kultura-produktzioa deitzen diogu.

Beraz, ezagutzaren banatzaile eta sortzailetzat hartzen bada eskola, curriculumak edukien bidez islatzen duen ikuspegiak garrantzi handia du identitatearen eraikuntzan.

Apple-k eta Weis-ek ere gai horrekiko arduraz adierazi dute, hots, zergatik aukeratzen diren ezagutza batzuk eta inposatzen diren beste batzuk, eta zein diren aukeraketa hori egiteko benetako prozedurak: «La preocupación es por qué procedimientos ciertos conocimientos son vistos como legítimos, en detrimento de otros, a los que se juzga ilegítimos» (Apple, Weis, 2001:44).

Kultura ondarea gizarte zientzien irakaskuntza-ikasketa prozesuan erreminta indartsua eta eraginkorra izan daitekeela ez da adierazpen berria, eta inork ez du zalantzan jartzen ondare-elementuen erabilerak erraztu egiten duela inguratzen gaituen inguruneaz ditugun galderak modu zuzenean erantzutea: hausnartuz eta, ondoren, ondorioak erdietsiz, gure ingurune soziala nola eraikitzen den hautematen dugu. Horretarako, Lehen Hezkuntzako irakaskuntza-ikasketarako, bidelagun ona izan daiteke, adibidez, *Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera* jakintza arloa (Fontal, 2003; Gabardón, 2005; González, 2006).

Baina zer ikuspegi soziokultural hartzen du erreferente gisa jakintza arlo horrek? Izan ere, 175/2007 Dekretua³, hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzekoa, 2010ean berraztertu eta egokitu zen, 97/2010 Dekretuaren bidez⁴. Dekretu berriak ez dakar aldaketarik kultura ondarearen tratamendu pedagogikoari dagokionez; bai, ordea, zenbait unetan, lurralde azterketa kontzeptu eremuari dagokionez, Euskal Herriaren ordezkari edo Autonomia Erkidegoa aipatzen delako Dekretuan, eta 2007ko Dekretuan aipatzen den Euskal Herria ia-ia zeharo baztertzen. Beharrezkoa da hori aipatzea, *Natura, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezaguera* jakintza arloak elkarrekintza zuzena duelako gure gertuko ingurunearekin. Izendatzeko orduan, baina, buruhauste dezente ematen du, eta, beraz, ingurune soziokulturala eta hegemonikoa nahasia azaltzen da gure testuliburutik (Ezkurdia, 2004). Ondorioz, umeei zailtasunak izan ditzakete adierazteko zer testuinguru soziokulturaletan bizi diren eta, beraz, baita beren identitatea hautemateko ere.

4. GERTUKO KULTURA ONDAREA: NORBERAREN IDENTITATEA EZAGUTZEN HASTEKO ETA PROIEKTATZEKO BALIABIDE PAREGABEA ESKOLAN

Ingurune natural eta sozial batean (gure kasuan, Gipuzkoako Debagoiena eskualdean)⁵ gizakiok eragindako prozesu baten ondoren sortzen diren ondasun kulturaletan oinarritzen da gertuko kultura ondarea, eta gizabanako nahiz kolektibitate baten identitatearen parte izatera ere iristen dela azpimarratu dugu, definizioaz hitz egiterakoan.

Identitatea, baina, gizabanakoak era indibidualean eta kolektiboan bere burua onartzen duen erreferente multzotzat hartzen da. Izan ere, pertsonaren baitan bi identitate mota garatzen direla ikusten dugu. Alde batetik, gizabanakoarena, era intuitiboan eta afektiboan lortzen duguna, eta gure ingurune hurbilenarekin harremanak eginez lortzen duguna. Bestetik, identitate kolektiboa, nahiz eta berezko osagarriak ere izan, aberastu egiten dena, adibidez, ikasketen bidez, eskolak eman dezakeen curriculum tratamendu sistematiko eta espezifikoen bidez... Horrek aukera ematen du, gainera, gertukotik abiatu bai baina gertukoena ere gainditzeko, eta beste

³ **Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko 175/2007 Dekretua. (2007eko urriaren 16koa).** Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 218 ZK, 2007ko azaroak 13.

⁴ Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma sortu eta ezartzeko den Dekretua aldatzen duen 97/2010 Dekretua. (2010eko martxoaren 30ekoa). Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria (EHAA), 72 ZK, **2010eko apirilak 20.**

⁵ Gatzaga, Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta eta Antzuola udalerriek osatutako mankomunitatea.

errealitate ezberdin eta ezezagun batzuekin ere bat egiteko; horren bitartez, balio zabalagoak, unibertsalagoak lantzen eta lortzen dira. Alegia, eza-gutzen dugun lokala eta nazionala, eta berriak, nazioaren gainekoak eta globala. Ez dugu ahaztu behar, baina, identitate kolektiboaren formazio prozesua, tokitik hasi eta globalera doana, sarritan istilu iturri ere badela (Valverde, Sequeiros eta Loma, 2001).

Identitate asko dituzten herritarrak konbinatzea da gakoa; beraz, horretarako, kohesiorako erremintak eraiki beharrean gaude, eta hori lortu ahal izango da tokiko identitatea eta hezkuntza zabala (kosmopolitagoa) eraikitzen bada, alde bateko zein besteko muturrak baztertuz. Calaf-ek dioen bezala: «es necesario, aprender a vivir juntos, adoptando un concepto de nosotros mismos como ciudadanos del mundo y simultaneamente conservar nuestra identidad local, y considerar la escuela como lugar para la convivencia de las diferencias culturales y del pluralismo democrático» (Calaf, 2009:47).

Beraz, identitatea konfiantza gutxiagoko testuinguru batean eraiki behar da gaur egun, garai bateko gizarte tradizionaletik urrun geratuz, hain zuzen ere. Izan ere, ahulduta daude garai bateko giza esperientziak eraginda sortutako identitate-mekanismoak, eta, garai bateko erreferente klasiko horiek huts eginda, identitatea eraikitzeke ditugun iturri berriak ahulak dira. Azkarraga-k dioen bezala: «gaur inoiz baino gehiago, identitatea norberak bere kasa eraiki behar du eta, gainera, lehen baino material makalagoak erabilita. Hezkuntzaren ikuspuntutik, gertaera hori gure garaiko gertaerarik garrantzitsuena izango da, ziur asko (...)» (Azkarraga, 2010:56-58).

Hala ere, bizi dugun aro berri honetan, hainbat erakunde modernok bezala (familia, estatua), eskolak ere baditu arazoak komunitate bateko herritarrak artikulatzeko eta integratzeko. Argi dago gaur egun hezkuntzak duen funtzioaz hitz egitea komeni dela, eta berriro mahaigaineratu behar dela gaur arte zer funtzio izan duen eta hemendik aurrera zer funtzio izango duen hezkuntzak herritarrak formatzeko eta erreproduzitzeko. Esan nahi da agian iritsia dela identitate legitimatzaile delakoaren funtzioa aintzat hartzeko garaia ere (Castell, 2005).

Herriaren ikasketa eskolan sartzeak ikasleriaren garapen pertsonal, kultural eta sozial egokia dakar, eta, aldi berean, beraren ingurune soziokulturalarekiko atxikimendua ere estimulatzen du. Gainera, identitatearen eskalak hautemate-prozesurako bidea ere errazten du. Nola?


Ondarearen ikusmira unibertsal batera — non elementu komuna gizateriaren ondarea den — iritsi nahian ari direnean, ezinbestekoa da bestean ondareak duen balioa ezagutzea eta onartzea. Izan ere, gutako bakoitzak dugun ondarearekin bat eginda osatzen dugu denok gizateriaren ondarea. Horrek esan nahi du, ondarea ezagutzeko, bizitzaren testuinguruarekin lotura daukaten jarduerak bultzatu behar dituela hezkuntzak, eta, aldi berean, norberarena ez denarekiko ulermena eta errespetua ere bultzatu behar di-

tuela (Ruiz eta Tormo, 2002); enpatikoa, hain zuzen ere. Hori baldintza bat da gizateriaren ondarea ezagutzeko eta balioesteko.

Ondarearen ikasketaren barruan eskala geografiko eta historiko desberdinak integratzeak esan nahi du tokiko historiak balio lezakeela gauza edo ohitura txikiak historia orokorraren testuinguruan daudela esateko, horrela esanguratsu bihurtzeraino (Friera, 2002).

Fontal-ek (2003), aldiz, eta kultura ondarearen osatze horren barruan irizpide geografiko eta historikoekin lotuta dauden eskalekin ari gara, zirkulu zentrokideen arazoarekin lotzen du: gizabanakoa zentro bihurtu, eta identitatea hartu zirkulu guztien antolatzaile-irizpidetzat. Hala, gizabanako bakoitzak osatzen duen ondaretik hasi, ondare sozialetik igaro (familia, eskola, auzoa...), eta, ondare kulturalerainoko tartean (herria-hiria, lurraldea, kontinentea, gizateria) badaude identitatea osatzen duten ondare batzuk, eta horiexek definitzen dute gizabanako horren errealitatea, beraren zereginen arabera testuinguruekin lotuta. Horrela, ondare bat baino gehiago izateak dakar kultura ondarea ulertzea, eta testuinguru bateko elementu identifikatzaile bihurtzen da.

Beraz, zirkulu zentrokide horren baitan, identitatea maila pertsonaletik unibertsalera pasatzen da; identitate indibidualak, kolektiboak eta sozialak biltzen ditu, eta trantsizioa bera izan daiteke estrategia egokiena, hezkuntza-ikuspuntutik begiratuta. Esan nahi da: ideia hori kultura ondarearen irakaskuntzari aplikatuta, ondarea bera eremu pertsonaletik lantzen hastea, zirkulu zentrokideen arabera zabaltzea, eta pertsona gehiagok parte hartzea (taldea edo klasea, auzoa, herria-hiria, eskualdea, lurraldea). Horretarako, paralelismoak erabiliko dira, baina norberarenetik haratago, bestearena ere ezagutzuz, balioetsiz eta partekatuz (nazionala, unibertsala).



Iturria: Egokituta Fontal-etik (2003:166).

1. irudia

Kultura Ondarea: zirkulu zentrokideak eta identitatea

Beraz, hezkuntza-jardueraren egituraketa eta hurrenkera egoki baten bitartez, ikasten ari direnek ondarea baliarazten, disfrutatzen, transmititzen, esperimentatzen eta esanguratsu bihurtzen ikasten dute (Fontal, 2003).

5. LABURPEN MODURA

Identitatearen kontzeptua elementu garrantzitsua da ondarearen irakaskuntza eta ikasketa prozesuetarako. Hasteko, eta, abiapuntutzat hartuta, garrantzitsua da «gu» identitatea adierazteko; izan ere, horrek norberaren sustriak, nortasuna ezagutzera garamatza. Baina, aldi berean, ez bereizteko, baizik eta integratzailea izateko.

Kultura ondarea identitate erreferente askoren sintesia da; eraketa sozial bat, eta legitimaziozkoa ere bai. Kolektibitate baten adierazpenak bezala, iraganaren, orainaren eta etorkizunaren elkargunea ere bada.

Era asko daude identitatea ulertzeko, eta iraganak —hots, memoria historikoa erabiltzea ondarea interpretatzeko— dakar balio eta asmo batzuekin identifikatzea. Edo, beste era batean esanda, ondare elementu eta erreferente zehatz batzuekin beste batzuekin baino lehenago identifikatzea dakar.

Aro Modernoan piztu ziren identitatearekin lotutako sentimenduen aldarrikapenak, estatu-nazioen eta estatu gabeko nazioen sorrera eta garapenarekin. Azken hamarkadetan, baina —eta ondare-aktibitate berri baten sorrerarekin du zerikusia adierazpen honek—, badirudi identitatearen motibazioa epeltzen ari dela, eta azaleko identitate bat azaltzen ari dela kontsumo gizarte honetan, turismoarekin eta komertzioarekin zerikusi handiagoa daukana.

Ondarearen eta identitatearen kudeaketak hezkuntza sisteman duen presentzia azpimarragarria da. Gizabanakoarena nahiz kolektiboarena den identitatea garatzea ezinbestekoa bada, horretarako, curriculumaren laguntza izan behar dugu; gertutik hasi eta mundu osoko kultura adierazpenetara garamatzen curriculumaren laguntza, alegia.

Curriculum eta identitatea ulertzeko eran egoera gatazkatsuak suertatzen dira sarri. Ezagutza hegemonikoa curriculum ofizialean adierazita dagoenez, uste dugu irakasleonek zereginetan aparteko garrantzia eman behar zaiola, eta galdera hauek erantzun behar direla: nola transmititzen da eskolatan? Zertan gauzatzen da hau guztia eskolan? Nola erreproduzitzen dugu gure identitatea? Nola adierazten dugu gure (gertuko) kultura ondarea? Zer baliabide eta material erabiltzen dugu horretarako?

Zirkulu zentrokideek definitzen dute gizabanakoaren kultura ondarea ulertzea eta identitate irekia izatea, eta, aldi berean, sistema hori izan daiteke hezkuntza-ikuspuntutik estrategia egokiena, batera zein bestera hurbiltzeko eta ezagutzeko, inorena baztertzeke.

Jasotze-data: 2013/12/11

Onartze-data: 2014/02/25

Abstract

An education system necessarily involves strategic work on the development of both individual and collective identity, with the result that their presence is evident in the curriculum. However, today's changing society brings both doubts and changes in the way this is viewed by collectives. We think that the use of the cultural heritage from the immediate surroundings can be an effective way to facilitate the transmission of identity construction whilst respecting diversity and being more inclusive.

Keywords: *Teaching and training. Identity. Cultural heritage in immediate surroundings. Transmission. Primary and Secondary education.*

El trabajo y el desarrollo de la identidad individual y colectiva forma parte de la planificación estratégica de cualquier Sistema Educativo, siendo por tanto necesaria su incorporación al curriculum. Sin embargo, también suscita dudas en una época cuyo dinamismo conlleva puntos de vista cambiantes. Así pues, la utilización del patrimonio cultural puede ser un medio para facilitar la transmisión de una identidad constructiva, plural e integral, pero comenzando siempre por el entorno más cercano.

Palabras clave: *Enseñanza y formación, identidad, patrimonio cultural, transmisión, educación primaria y secundaria.*

Un système d'éducation implique nécessairement un travail stratégique sur le développement de la fois l'identité individuelle et collective, de sorte que leur présence est évidente dans le programme. Cependant, l'évolution de la société d'aujourd'hui apporte à la fois des doutes et des changements dans la façon dont cela est perçu par les collectivités. Nous pensons que l'utilisation du patrimoine culturel des environs immédiats peut être un moyen efficace pour faciliter la transmission de la construction de l'identité, tout en respectant la diversité et d'être plus inclusif.

Mots clé: *Enseignement et formation. Identité. Patrimoine culturel dans les environs immédiats. Transmission. L'enseignement primaire et secondaire.*

BIBLIOGRAFIA

- Allieu-Mary, N. eta Frydman, D. (2003). L'enseignement du patrimoine et la construction identitaire des élèves. *Les Cahiers. Innover et réussir*, 5, 48-54.
- Apple, M.W. eta Weis, L. (2001). Una visión relacional de la educación: la estratificación de la cultura y la gente en la sociología del conocimiento escolar, in: M.W. Apple. *Teoría crítica y educación*. Madrid: Miño y Dávila ed.
- Arrieta, I. (2008). Legislación patrimonial, intervención pública y participación ciudadana en la declaración de un conjunto histórico, in: I. Arrieta (Ed.). *Participación ciudadana, patrimonio cultural y museos. Entre la teoría y la praxis*. Bilbo: UPV/EHU. Argitalpen Zerbitzua.
- Azkarraga, J. (2010). *Hezkuntza, gizartea eta eraldaketa kooperatiboa. Zenbait gogoeta, Gizabidea Fundazioaren hausnarketa estrategiko*. Eskoriatza: LANKI-HUHEZI.
- Basurco, F. (2007). Globalizazioa ez da beste erreforma bat, in: B. Bilbao eta K. Perez (Koord.). *Paulo Iztueta. Euskal Pentsamenduaren Eraikitzaile*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Bilbao, B. (2002). *Kultura Erreferenteak Oinarrizko Hezkuntza Curriculumean Euskal Herriko eskoletan*. Doktorego Tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Calaf, R. (2009). *Didáctica del patrimonio. Epistemología, metodología y estudio de casos*. TREA: Oviedo.
- Calhoun, C. (1994) (Ed.). *Social Theory and the Politics of Identity*. Oxford: Blackwell.
- Castells, M. (1999). *La era de la información. Economía, sociedad y cultura. El poder de la identidad (Vol. 2)*. Madrid: Alianza Editorial.
- Castells, M. (2005). Globalización e identidad (bertsio elektronikoa). *Quaderns de la Mediterrània*, 5, 16-17, (11-20).
- Correa, M. J. (2003). Consideración didáctica de la noción de patrimonio cultural y enseñanza. A propósito de la identidad, in: D. Ballesteros; C. Fernández; J.A. Molina eta P. Moreno, P (Coords.). *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales*. Cuenca: AUPDCS-Universidad de Castilla la Mancha.
- Cuenca, J.M. (2002). *El patrimonio en la didáctica de las ciencias sociales. Análisis de concepciones, dificultades y obstáculos para su integración en la enseñanza obligatoria*. Doktorego tesia. Huelva: Universidad de Huelva, Departamento de Didáctica de las Ciencias y Filosofía.
- Da Silva, T. (2001). *Espacios de identidad. Nuevas visiones sobre el curriculum*. Barcelona: Octaedro.
- Díaz de Balerdi, I. (2008). *La memoria fragmentada. El museo y sus paradojas*. Gijón: Ediciones TREA.
- Delors, J. (1996). *La educación encierra un tesoro. Informe de la Comisión Internacional sobre la Educación para el Siglo XXI*. París: UNESCO
- Domínguez, C. (2003). El Patrimonio. A la búsqueda de un lugar en el curriculum, in: E. Ballesteros eta beste batzuk. *El patrimonio y la didáctica de las ciencias sociales*. Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.
- Ezkurdia, G. (2004). *Identitatea eta Ingurunea Curriculumean*. Doktorego tesia. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

- Fernández, F. (2001). El concepto de patrimonio cultural desde la perspectiva de la antropología, in: J.M. Iglesias (Ed.). *Cursos sobre el patrimonio histórico*, 6. Reinosa: Universidad de Cantabria-Ayuntamiento de Reinosa.
- Fernández-Salinas, V. eta Romero-Moragas, C. (2008). El patrimonio local y el proceso globalizador. Amenazas y oportunidades, in: J. Alonso eta M. Castellano. *La gestión del patrimonio cultural. Apuntes y casos en el contexto rural andaluz*. Granada: Ara/Asociación para el Desarrollo Rural de Andalucía.
- Fontal, O. (2003). *La educación patrimonial. Teoría y práctica en el aula, el museo e internet*. Gijón: TREA.
- Friera, F. (2002). Patrimonio histórico local e integración de escalas en los currícula, in: J. Estepa; F. Friera eta R. Piñero (Koord.). *Identidades y territorios*. Oviedo: KRK.
- Gabardón de la Banda, J.F. (2005). La enseñanza del patrimonio. Propuestas educativas en torno al patrimonio local. *Investigación en la escuela*, 56, 87-93.
- García, Z. (2009). ¿Cómo acercar los bienes patrimoniales a los ciudadanos? Educación patrimonial, un campo emergente en la gestión del patrimonio cultural. *PASOS. Revista de Turismo y Patrimonio Cultural*, 7 (2), 271-280.
- González, N. (2006). *L'ús didàctic i el valor educatiu del patrimoni cultural*. Departament de Didàctica de la Llengua i la Literatura i de las Ciències Socials. Doktorego tesia. Bartzelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- Homobono, J.I. (2008). Del patrimonio cultural al industrial: una mirada socioantropológica, in: X. Pereiro; S. Prado eta H. Takenaka (Koord.). *Patrimonios culturales: educación e interpretación. Cruzando límites y produciendo alternativas*. Donostia: ANKULEGI antropologia elkartea.
- Le Goff, J. (1998). *Patrimoines et passions identitaires*. Actes des entretiens du patrimoine. Paris: Fayard.
- Lipovetsky, G. (1996). La era del vacío. Ensayos sobre el individualismo *contemporáneo*. Bartzelona: Anagrama.
- Martín, M.J. eta Cuenca, J. M. (2011). La enseñanza y el aprendizaje del patrimonio en los museos: la perspectiva de los gestores. *Revista de Psicodidáctica*, 16 (1), 99-122.
- Ortega, N.I. (2001). El Patrimonio expresión de la identidad de un pueblo. El itinerario histórico-artístico como propuesta didáctica, in: J. Estepa; F. Freira eta R. Piñero (Coord.). *Identidades y territorios*. Oviedo: KRK.
- Prats, J. (1997). La investigación en didáctica de Ciencias Sociales (notas para un debate deseable), in: Askoren artean. *La formación del profesorado y la didáctica de Ciencias Sociales*. Sevilla:Diada.
- Prats, J. eta Santacana, J. (2011). La historia oral y los documentos fotográficos y audiovisuales, in: J. Prats (Koord.). *Geografía e Historia. Investigación, innovación y buenas prácticas*. Bartzelona: GRAÓ.
- Prats, Ll. (2009). *Antropología y Patrimonio*. Bartzelona: Ariel.
- Ramírez, M. C. (1996). Brokering Identities. Art Curators and the Politics of Cultural Representation, in G. Greeberg; B.W. Ferguson eta S. Nairne (Eds.). *Thinking about Exhibitions*. Londres eta New York: Routledge.
- Reyes, J.I.; Arteaga, F. eta Jevey, A.F. (2003). La enseñanza de los valores patrimoniales en la enseñanza primaria en Cuba, in: E. Ballesteros eta beste batzuk (Koord.). *El patrimonio y la didáctica de las Ciencias Sociales*. Cuenca: Asociación Universitaria de Profesores de Didáctica de las Ciencias Sociales.

- Rubio, C. (2003). *La identidad vasca en el siglo XIX. Discurso y agentes sociales*. Madrid: Biblioteca Nueva.
- Ruiz, M. eta Tormo, S. (2001). *El espacio de la juventud en la política de Patrimonio*. Actas de Forum UNESCO. VI Seminario Internacional. Valencia: Universidad Politécnica de Valencia.
- Valverde, F.; Sequeiros, C eta Loma, M. (2001). La ciudad y el patrimonio urbano como forjadores de identidad, in: J. Estepa; F. Frieria eta R. Piñeiro (Eds.). *Identidades y Territorios. Un reto para la didáctica de las Ciencias Sociales*. Oviedo: KRK ediciones.